

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1595

EBAZPENA, 2020ko martxoaren 9koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei 2019-2020 ikasturterako euskara-ikastaroengatik esleitutako dirulaguntzak.

2019ko irailaren 9ko EHAAan argitaratu zen euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei 2019-2020 ikasturteko euskara-ikastaroengatik esleituko zaizkien dirulaguntzen deialdia egiten duen HABEko zuzendariaren 2019ko abuztuaren 29ko Ebazpena.

Aipatu ebazpenaren 7.4 oinarriak dioenez, dirulaguntzak esleitzen dituen ebazpenaren berri onuradun bakoitzari emateaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira emandako dirulaguntzak eta horien onuradunak.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– HABEko zuzendariaren 2019ko abuztuaren 29ko Ebazpenaren babesean esleitutako dirulaguntzak eta hauen onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Donostia, 2020ko martxoaren 9a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

2020ko martxoaren 17a, asteartea

ERANSKINA

Onuraduna	Euroak
Ardatz Kultur Elkartea	1.677.182,68
Bai&By Araba SL	120.972,06
Bai&By Gipuzkoa SL	64.671,30
Behin Betiko SL	212.559,81
Bilbo Zaharra Euskaltea Koop.E.	1.029.996,34
Deustuko Unibertsitatea Euskal Irakasletoa	215.742,46
Errioxa Kultur Elkartea	124.338,22
Euskal Herriko Ikastolak Europar Koop. Elk.	429.462,41
Euskaraz Koop.E. Araba	913.475,07
Euskaraz Koop.E. Bizkaia	4.248.271,17
Euskaraz Koop.E. Gipuzkoa	2.740.582,70
Fundación Cultural Privada Aurtan Bai	992.108,59
Gernika XXI SL	408.215,70
Gotzon Garitaonaindia Kultur Elkartea	119.167,80
Hegoalde Kultur Elkartea	236.748,30
Herri Jakintza Kultur Elkartea	162.093,41
Hitzez Euskaltea SL	223.062,76
Ilazki Euskaltea KE	439.796,39
Jose Antonio Agirre Kultur Elkartea	174.187,94
Juan Mateo Zabala Euskaltea SL	644.852,94
Labayru Fundazioa	117.016,50
Legazpi 6 Euskaltea SL	215.264,98
Maizpide Kultur Elkartea	983.487,71
Mondragon Lingua S. Coop. Bilbo	30.240,71
Mondragon Lingua S. Coop. Donostia	56.374,44
Mondragon Lingua S. Coop. Gasteiz	42.082,85
Orixe Euskaltea SAL	161.237,10
Txinta S.Coop. Ltda.	2.222.297,64
Udaberria Kultur Elkartea	530.819,86
Ulibarri Euskaltea Koop.E.	1.206.857,54
Urrats Euskaltea S.Coop.Ltd.	480.282,31
Guztira	21.223.449,69